

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Lopez

Ibarretzek esan ohi zuen “psozialistak” ez direla fidagarriak. Arrazoi du. Gogoratu baino ez dugu egin behar Gonzalezek egindakoa: GAL...; edo Zapaterok nola engainatu gintuen negoziazioaren kontuarekin, gerora errepresio basatira pasatzeko.

Gizalegebako errepresio honen isla den Alderdien Legeaz baliatuta, frankismoa kondentzeari uko egin dioten peperoek lagunduta, heldu dira Ajuria Eneara estatu-terrorismoa bultzatu eta oraindik barkamena eskatu ez dutenak. Heldu diren moduan heldu direla, osatu duten gobernua ezingo da inoiz zilegitasunez aritu, egiten duena egiten duela ere. Hala eta guztiz, egiten dutena herriarentzat onuragarria izatea nahi nuke.

Goizegi da emaitzak ikusteko. Momentuz berba eta berba egin dute, baina ekintza gutxi. Berba asko. Batzuek onesgarriak dirudite. Baten bati *tranpa* nabaritzen zaio, ordea. Adibidez, ondo ezagutzen dudana Celaá andreak esan berri du hiru hizkuntzaren ezagutza –gaztelania, euskara eta ingelesa– bultzatu eta bermatuko dituela. Ederto. Baina baieztapen horrek alde iluna ezkututzen du: desagertzear zegoen A eredia berrindartzeko asmoa du, hiru hamarkadatan argi baino argiago gelditu den arren eredu horrek ez duela inondik inora bermatzen euskararen ezagutza. Ekin-



INIGO AZKONA

tza gutxi. Batzuk itxaropen guztiak galtzeko modukoak: euskaraz ez dakien eta preserbatiboa publikoki gutxiesten duen andre bat jarri legebiltzarburu; EITBko zuzendaritzarako eskuin espainol(ist)aren bozgorailua den *Vocento* taldeko gizon bat proposatu, hau ere erdalduna.

Aurreko batean aipatu nuen baikortasunagatik-edo, zerbait positiboa ere ikusi dut eginkoan: lehen aldiz lehendakari kargua hartzeko zinaren protokoloan erlijio ikurrik ez.

Bazen garaia! Benetan lotsatuta eta irainduta sentitzen nintzen, euskal herritar –edo hiritar– naizen aldetik erabili ohi zen formula entzuten nuen bakoitzean: “Jaungoikoaren aurrean apalik...”. Areago, hitzok gurutze baten eta bibliaren aurrean esaten zirela ikusita. Oraingoan, egia, ez dut ez gurutzerik ez bibliarik ikusi, ezta ezein jaungoikoren arrastorik ere. Baina bestelako goiko jaun batzuk –eta andre– ikusi ditut, uniformedun batzuk, uniforme barik besteak. Horiek ere ez ditut batere gustuko. “Koroari eta Konstituzioari leialtasuna erakutsiz” esanez egin zuen lehendakariagaiak zina. Nire poza putzura, amets zoroen modura. Berriz sentitu naiz irainduta, euskal herritar –edo hiritar– naizen aldetik.

Ibarretxe ez zen denon lehendakaria, ez zen nire lehendakaria. Lopez are gutxiago.

◀ Ibarretxe ez zen denon

lehendakaria, ez zen nire

lehendakaria. Lopez

are gutxiago ▶

TXANDAN

Igor Estankona

Nostalgia



Azkazalari sobratzen zaiona ere ez omen diote emango aurrez –edo ondoren, berdin dio– terroristatzat jotzen dituzten jarrerei. Zapaterok esan du BECen, idazten ari naizen gau honetan bertan, “indarkeria darabiltenek hainbat arinen eman behar diotela bukaera” edo osterantzean eurek emango diotela akabera “hainbat arinen”.

Aitak eta amak eta etxeko laurok betidanik entzun duguna behin eta berriro entzutea akigarria da duda barik, baina kontua da oraingoan bariante bat sartu duela presidenteak, urgentiarena, sano interesgarria.

Presal dauka, bada, zerbaitetarako? Ur barik ez al zen geratzen ari, bada, arraina? Etsaiaren gorpua

aurretik ez zitzaien pasatu behar laster?

Historia geldoa da, tristea normalean, eta are geldoagoa ematen du gainera politikariak azeleratzen direnean. Tebistan, lehiaketa musikal bateko finalean, 70eko edo 80ko hamarkada, zein izan ote zen oparagoa bozkatu behar zuen ikusleagoak orain dela egun batzuk. Zein aukeratuko zenuke zuk, kontuan harturik ehuneko berrogeita hamarrek langabezia edukiko dugula laster gazteen artean? Ez bata ez bestea, seguruenik. Baina botereitsuak zu baino beldurtuago daude: amaieraz hitz egiten hasi dira hau berpiztu baino ez dela egin dirudienean. ■